

EAJ-PNVren EBBren Adierazpena

AUZITEGI GORENAREN EPAIAREN AURREAN

Espainiako Auzitegi Gorenak gaur bertan eman du ezagutzera Kataluniako `procés´aren epaia, nazio hartako hainbat agintari politiko eta soziali 9 urtetik 13 urtera doazen espetxe zigor gogorrek ezarritik, ustezko sedizio eta bidegabeko erabiltze delituak egotzita. Epaia kontrako errekurtsoa Auzitegi Konstituzionalaren aurrean aurkeztu ahal izango da eta, bere kasuan, Giza Eskubideen Europako Auzitegian ere. EAJ-PNVren aburuz erabaki benetan larria da, auzi politiko baten judizializazio arduragabea dakarrena. Ebazpen eta auto judizialen gainetik ere, auzi politiko horrek bere horretan jarraituko du eta zigor esparrura eramanda, are indar handiagoarekin. Organo jurisdikzionalaren epaia baino, hauxe izan da Estatuak eman duen erantzuna. Botere judizialaren baliabideak inoizko indarrak handienarekin erabilita, une honetan bizirik dagoen gatazka politikoari erantzun dio, gaur ezagutu den erabakiak are larriago bihurtzen duen krisia dagokion testuingurutik ateratzen duena.

Euzko Alderdi Jeltzaleak hasieratik defendatu du prozedura judizial hau ez zela sekula ere eman behar. Bere garaian salatu genuen bezain irmo salatzen dugu gaur Kataluniako gizartearen ordezkari legitimoak bi urte luzetan presoaldi prebentiboarekin zigortu izana. Salbuespenezko zigorra izan zen eta oraingo epaiarekin are larriago bilakatu da, gatazkari amaiera eman beharrean bere gorenera eramaten baitu eta Espainiako Estatuaren barruan elkarbizitza demokratikoa hautsi baidezake. Katalunian auzi politiko bat dago, eta auzi politiko honek behar duen irtenbidea ez da etorriko epaiketetatik edo ebazpenetatik ezta 155. artikulua aplikatuz ere.

Euzko Alderdi jeltzaleak espetxean jarraitzen duten eta epai honek kondenatu dituen Kataluniako ordezkariak askatzea erreklamatzeko du, gertakariak esparru politikora mugatzen direla ulertzen baitugu.

Gure elkartasuna eta hurbiltasuna adierazi nahi diegu egoera bidegabe honek kaltetzen dituen pertsona guztiei, beren senideei eta ordezkatzeko dituzten erakunde politiko eta sozialei. Era berean, Euzko Alderdi Jeltzalearen Euzkadi Buru Batzarrak eskatzen du epai bidegabe horri emango zaion erantzun irmo, bare eta anitza Kataluniak baliatu izan duen bide beretik eramana izan dadila, hau da, bide baketsu eta demokratikoen bidez egin dadila.

Amaitzeko, Espainiako jarduneko Gobernuari eta Espainiako gainerako indar politikoei dei egiten diegu eta eskatzen diegu auzi hau bide onetik eraman dezatela, epai honek dakartzan ondorio pertsonal eta politikoak arintzeko bidea ekarriko duten konponbideak bilatuz, eta elkarrizketari aukera bat eman diezaiotela legalitate eta zilegitasun demokratikoa uztartuz, aniztasuna errespetatuko den eta auzi politikoak baliabide politikoen bidez erabakiko diren egoera batean.

Konponbidea etorriko da, ezinbestean, elkarrizketatik. Elkarrizketa ireki, eraikitzaile eta demokratikotik. Kataluniako biztanleriaren gehiengoaren borondateari asebetetzeko erantzuna emango dion negoziaketatik. Hiritargo honek bere etorkizuna erabakitze eskubidea dauka.